



TEEHen* BIRZIKLAPENARI BURUZKO ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA

IRITSI DA HARATAGO JOATEKO UNEA PARTE HARTU

Tresna elektriko eta elektronikoaren denda bat bazara,
lehiaketa hau zuretzat da.
Eta zure erakuslehoak irabazten badu, zuk irabaziko duzu...



* Tresna Elektriko eta Elektronikoaren Hondakinak

TEEHen BIRZIKLAPENARI BURUZKO ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Hona hemen «TEEHen birziklapenari buruzko Erakusleihen Lehiaketa» (TEEH edo Tresna Elektronikoen Hondakinak). Deitzaileak dira Nafarroako Gobernua, TEEHak Kudeatzeko Sistema Integratuen entitate kudeatzaileak (Ambilamp, Ecoasimelec, Ecofimática, Ecolec, Ecolum, EcoRAEE, Ecotic, ERP –Europako Birziklapen Plataforma- eta Tragamóvil) eta, Gestión Ambiental de Navarra (GAN), betiere Hondakin Mankomunitateek babesturik, eta Nafarroako Merkataritza Federazioak nahiz Nafarroako Etxetresna Elektrikoen Merkataritza eta Banatzaile Elkarteak lagundurik. Lehiaketa merkataritza txikiarentzat da. Izan ere, Nafarroako Gobernuak hitzarmena egin du harako entitate kudeatzaile haiekin, eta GAN arduratzen da hitzarmena garatzeaz. Horren baitan, sentsibilizazio eta hedapen jarduketak egiten dira, eta lehiaketa hau horietako bat da.

1. Parte-hartzaileak.

TEEHen kudeaketarekin zerikusia duten Foru Komunitateko merkataritza-establezimenduek izanen dute parte hartzeko aukera (elektronika dendak, telefonia digitala, burdindegia, argiztapen establezimenduak eta abar).

2. Gaia.


Erakuslehoaren edukiak erakutsi beharko du zer-nolako garrantzia duen hondakin elektriko eta elektronikoaren kudeaketak ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik, eta nabarmenduko du hondakinok dagokien tokira egokitasunez eraman beharra, errazago berrerabili eta birziklatu daitezela. Horrela, mezuak bere baitan bilduko du zer bide dauden horrelako hondakinak biltzeko eta, era berean, ingurumenarekin bat datorren kudeaketa egitea bermatzeko: hots, tresna zaharra eraman behar da tresna berria erosiko duten dendara, edota mankomunitateen biltzeta zerbitzuak: hau da, tamaina handiko hondakinak nahiz TEEHen biltzeta, eta garbigunea.

Hondakin elektriko eta elektronikoaren artean, honakoak daude: etxetresna elektronikoa handiak, etxetresna elektronikoa txikiak, informatika-tresnak, kontsumo-aparatuak, argiztapen-tresnak, tresna elektrikoak edo elektronikoak, eta jostailuak.

3. Aurkezpena.

- Parte-hartzaileak gehienez erakusleho bakarra aurkeztu beharko du; hau da, lokalak hainbat erakusleho baldin baditu, bat bakarra aurkeztuko da lehiaketara.
- Apaingarriek tresna elektrikoak eta elektronikoak izan beharko dute, edo tresna elektrikoak eta elektronikoak egin beharko diete erreferentzia, bai eta tresna horiek ongi birziklatzeari ere. Agerian

Elkarrizketa



Logotipoak



Barneak

Mancomunidades de Residuos de Navarra Nafarroako Hondakin Mankomunitateak

egonen dira uneoro, hau da, jendeak ikusteko moduan, eta ez lokal barruan, lehiaketaren epealdian; apirilaren 10etik 19ra. Establezimendu irabazleek gutxienez beste astebetez mantendu beharko dute erakusleihoa, lehiaketako erabakia apirilean aditzera ematen denetik aurrera.

- Establezimendu parte-hartzaileei kartel bereizgarri bat emanen zaie eta huraxe paratu beharko dute, kanpainan hartzen ari diren seinale.

- Establezimendu parte-hartzaileek beren establezimenduaren argazki bat bidali beharko dute, bereizmen onekoa betiere (4 MB gutxienez) **apirilaren 10an**, lehiaketako webean www.ganasa.es aurkituko duten formularioaren bidez; bete beharreko eremu guztiak bete beharko dituzte.

4. Materialak.

- Zilegi izanen da erakusleihan denetariko materialak erabiltzea, lehiaketarekin lotura badute.
- Aurreko kanpainetan erabilitako komunikazio-materialak daude establezimendu parte-hartzaileen eskura, nahi izanez gero, erabili ditzaten. Inprimaketa haien kontura joanen da.

"Lotu zaitez birziklapenari" erakusketa.

- [Erakusketako panelak](#)
- [Ikus-entzunezkoak](#)

Mikrokontakizun lehiaketa: "Jarraipena eman haren historiari, birziklatu".

- [Kontakizun](#)

5. Izen-ematea.

- Izena emateko epea martxoaren 31n itxiko da.
- Establezimendu interesatuek [izena emateko formularioa](#) bete beharko dute.

6. Epeak.

- Argazkiak aurkezteko: parte-hartzaileek beren establezimenduaren argazki bat bidali beharko dute, bereizmen onekoa (4 MB, gutxienez) apirilaren 10ean, lehiaketaren webean www.ganasa.es aurkituko duten formularioaren bidez. Bete beharreko eremu guztiak bete beharko dituzte.
- Erakusleihok prestatzeko: erakusleihok apirilaren 10etik 19ra egon beharko dute muntaturik, lehiaketaren epealdian, baina nahi duenak bere horretan mantendu ditzake, behin lehiaketaren gaineko erabakia jakin ondoren. Establezimendu irabazleek gutxienez beste astebetez mantendu beharko dute erakusleihoa, apirilean lehiaketaren gaineko erabakia aditzera ematen denetik aurrera.

7. Saria.

Sariak publizitate-espazioak izanen dira, eta espazio horien edukiak establezimendu irabazlearen edo irabazleen izenarekin lotuko du zabaldu nahi den ingurumen-mezua; horrela, herritarrak are gehiago sensibilizatuko ditugu bai birziklatzeaz bai establezimenduaren irudiaz.

- Lehen saria: 500 euro publizitatean
- Bigarren saria: 300 euro publizitatean

8. Irizpideak.

Mezuaren transmisioa, eta erakusleihorearen originaltasuna eta balio estetikoak baloratuko dira. Horrenbestez, hona aukeraketa irizpideak:

- Mezua bat ote datorren eta koherentea ote den TEEHak egokitasunez kudeatzearekin
- Originaltasuna
- Estetika

9. Epaimahaia

Hona hemen epaimahaikideak:

- Nafarroako Gobernu Toki Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko ordezkari bat.
- Gestión Ambiental de Navarra(GAN) ordezkari bat.
- Nafarroako Etxetresna Elektrikoen Merkatari eta Banatzaile Elkarteko ordezkari bat.


Elkarrizketa



Logotipoak



Partekatu



- Hondakin mankomunitateetako ordezkari bat.

10. Epaimahaiaren erabakia

- Epaimahaiaren erabakia apirilaren 20an emanen da aditzera www.ganasa.es webean, eta berariaz jakinaraziko zaio establezimendu saritu bakoitzari.

- Sariak, zehazteko dauden egunean eta tokian emanen dira, eta, garaiz jakinaraziko zaie parte-hartzaileei.

- Epaimahaiaren erabakiak ezin izanen dira atzera bota. Erabakiak kideen gehiengo soilaz hartuko dira, etasaria eman gabe gera daiteke, baldin eta, jaso diren irudiak zehatz-mehatz aztertu ondoren, bakar batek ere ez badu behar adinako kalitatetik.

- Irabazleak saria onartzeak berekin dakar baimena ematea haren izena eta irudia publizitate bidez erabiltzeko lehiaketari dagozkion kontuetan.

- Egileak bere erakusleahoaren irudia argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea lagako du, GANek egoki jotzen dituen euskarri guztietan. GANek, aldi berean, konpromisoa hartzen du erakuslehoa nork egin duen aipatzeko.

- GANek ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik lehiaketan aurkezturiko eta hirugarrenek webean argitaraturiko irudien erabilera txarretik nahiz desegokitik erator litezkeen kalteengatik.

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoarekin bat, «TEEHen birziklapenari buruzko erakuslehoak» lehiaketan izena emateko emandako datuak GANeko artxibategian sartuko dira aldi baterako, parte-hartzea aipatu Lehiaketan kudeatzeko eta kontrolatzeko.

- Badago datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta haien aurka egiteko eskubidea. Horretarako, idazkia helarazi beharko da Gestión Ambiental de Navarraren egoitzara: Aita Adoain 219 behea.

31015. Iruña (Nafarroa) edo posta elektronikoko bat helbide honetara bidaliz:

residuos.ganasa@gmail.com

Elkarrizketa



Logotipoak

Botanika



Mancomunidades de Residuos de Navarra Nafarroako Hondakin Mankomunitateak